

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDAL ADMINISTRAZIOA

Mendizorrotzeko kirol-esparruko garbiketa integraleko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa

2016ko azaroaren 11n onetsi 2016/CONASP0415 kontratazio-dosierra, Mendizorrotzeko kirol esparruko garbiketa integraleko zerbitzua esleitzeko

1. Esleitzen duen toki-erakundea.

a) Erakundea: Vitoria-Gasteizko Udala.

b) Dosierra izapidetzen ari dena: Udal administrazioa

c) Dosier zenbakia: 2016/CONASP0415.

2. Kontratuaren xedea.

a) Xedearen deskribapena: Mendizorrotzeko kirol esparruko garbiketa integraleko zerbitzua.

b) Kontratu mota: zerbitzuak.

c) CPV kodea: 909112008. Eraikinak garbitzeko zerbitzuak.

d) Aldaerak onartzea: ez da egokia.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapideak: ohikoak.

b) Prozedura: irekia.

c) Arautze harmonizatuari lotutako kontratua: bai.

d) Gauzatzeko epea: bi urte

e) Luzapena: luzapen bat edo gehiago, gehienez bi urte.

4. Kontratuaren zenbatekoa, edo zenbatera artekoa:

Aurrekontua, BEZ barne: 2.162.700,76 euro. Kopuru horretatik BEZari dagozkio: 375.344,76 euro.

5. Alderdi juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoei buruzko informazioa:

a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

b) Behin betiko bermea: kontratuaren aurrekontu osoaren (BEZik gabe) ehuneko 5, baldintzen agirian aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

c) Berme osagarria: ez da eskatzen.

d) Ordaintzeko modua: ikus administrazio baldintzen orriak.

e) Balorazio-irizpideak: administrazio baldintzen agirian adierazten direnak, beheranzko hurrenkeran.

f) Sailkapena (taldea, azpitaldea eta kategoria): ez da eskatzen.

- g) Kaudimen teknikoak: ikus administrazio baldintzen orriak.
- h) Kaudimen ekonomikoak: ikus administrazio baldintzen orriak.
- i) Kontratua gauzatzeko berariazko baldintzak: ikus administrazio baldintzen orriak.
- j) Langileak subrogatzea: ez da egokia.

6. Agiriak eskuratzea:

a) Lekua: ARCO fotokopia-denda San Antonio kalea, 16; 01005 Gasteiz; telefonoak: 945 232813 eta 945 140678, faxa: 945140678-, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

c) Dosierra aztertzea:

Udal Administrazioaren Saileko Udal Eraikinetako Mantentze Zerbitzuan aztertu ahal izango da dosierra —Oreitiasolo kalea, 5; 01006 Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 161469, faxa: 945 161487—, iragarkia EBAOn edo ALHAOn agertu ondorengo lehen egun baliodunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango da: <http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak>

7. Eskaintzak aurkeztea:

a) Aurkezteko azken eguna: 2016ko abenduaren 28a.

b) Ordutegia: 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

c) Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945 161600 fax zenbakira igorri beharko da horren jakinarazpena.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio baldintzen orria.

e) Aurkezteko tokia: Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25-behea, 01008, Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak.

f) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 6 hilabete.

g) Eskaintzak zabaltzea:

B gutun-azala (administrazio agiriak) jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko da, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren egun baliodun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamar eta erdietan (10:30).

C gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ezin den balio-iritziaren mende dauden esleipen-irizpideak baloratzeko agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B gutun-azalak zabaltzen diren asteazken berean, hamaika eta erdietan (11:30).

A gutun-azala (eskaintza ekonomikoa eta balorazio irizpideetarako agiri teknikoak, prezioa ez direnak, baina formula aplikatuz ebaluatu behar direnak) jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean (www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak) adierazten den egunean eta orduan.

8. Iragarkien gastuak: esleipena jasotzen duenaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 14an

Udal Administrazioaren Saileko Udal Eraikinetako Mantentze Zerbitzuko burua
BLANCA DÍAZ DE DURANA